

Martutene

Santo Tomas feria

Amaitia Etxeberria (943-210937)

Arantzazuko Ama Martuteneko ikastolak aurten ere Santo Tomas feria antolatuko du. Feria ez da Santo Tomas bezperan egingo, hilaren 16an baizik.

ferian animalia, barazki eta tresna zaharren erakusketa egongo da. Horrez gain, DBHko ikasleek taberna eta postuak jarriko dituzte, ikasturte amaia egingo duten bidaiarako sos batzuk ateratzeko asmoz. Talo gozoak erosteko aukerarik ere egongo da, talogileak egongo baitira

**Feria
Astigarragako
egoitzan
egingo da**



Azken egunotan Arantzazuko Ama ikastolako haurrak jo eta su ibili dira gabon kantak entseiatzen.

azokan. Noski, bertan ez da Santo Tomaseko ohiko txistorrarik faltako. Arratsalde partean kantu jaialdia egingo da. Ikastolako haurrek jo eta su ibili dira azken egunotan gabon kantak entseiatzen. Feria ez da Martuteneko egoitzan egingo Astigarragakoan baizik. Gogoan izan dezagun iaz Santo Tomas feria ikastolak auzoan duen egoitzan egin zela. Aurten, ordea, Astigarragako egoitzaren txanda izango da.

Auzotar guztiok, beraz, gonbidatuta zaudete feriara datorren hilaren 16an.

Merkatu txikia gaztelekuan

Hilaren 19an, Martuteneko gaztelekuan, bidezko merkataritzari buruzko hitzaldia egingo da, arratsaldeko 18.00etatik aurrera. Ondoren, merkatu txikia antolatu da.

Autobia aztergai

Joan den astelenean, hilak 11, Aieteko "La Cumbre" jauregian, Urumeako autobidearen ibilbidea aztertzeko laugarren bilera egin zen. Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek aurkeztutako proiektu ezberdinen inguruan jardun zuten. Hala ere, oraindik ez da behin betiko ibilbidearen inguruko informazio zehatzik eman.



Santo Tomas gaztelekuan

Hilaren 21ean, Santo Tomas ospatuko dute gaztelekuko hurrek. Hurrengo egunean, berriz, arratsaldeko 18.00etatik 20.00etara, mahai joko txapelketa egingo da.

3032000

Donostia erdialdean ireki berri den jatetxeak IRUTXULOko irakurlea agurtu nahi du.

TABERNA

- Egunero irekia
- Egunero menua
- Errazio ezberdinak
- Iberiar urdialzpikua
- eta solomocan adicua
- Pintxo hotzak eta beroak

JATETXEA

- Azokako sukaldaritza
- Donostiako erdialdean
- Bazkariek eta afariak kartan
- Menu ezberdinak

Larramendi, 4 - Tel.: 943 45 64 98 - 20.006 DONOSTIA

Egun osoz zabalik (10:00etatik 23:00tara)

Jatetxea

MUXARRA

Bokateria

Karta • Eguneroko menua • Bokatak

IGARA bidea, 16 beheka DONOSTIA 2009

Tel.: 943 31 07 97 • 943 21 76 86